

VARELA, J. (2007)

Las reformas educativas a debate (1982-2006). Madrid: Morata.

Liburu honek azkeneko bi hamarkadan eman diren hezkuntza erreformak era kritikoan aztertzen ditu. Espainiako estatuan garaturiko erreformaren ebaluazioa adituei egindako elkarrizketen bidez aurkezten da.

Gimeno Sacristan, Mariano Fernandez Enguita, Juan Delval, Jurjo Torres, Juan Ignacio Ramos, Antonio Garcia eta Javier Doz-ek hezkuntza erreformaren politika leiho ezberdinetatik jorratzen dute.

Jose Gimeno PSOEek bultzaturiko erreformak aztertzen ditu zorrozki. Bere garaian Maravall eta Solanaren aholkularia izan zenak, garai hartan erreformak izan zituen alderdi ilunak eta gabeziak plazaratzen ditu: elizarekin eta sindikatuekin egon ziren tirabirak, ministerioan zegoen eskarmentu eza, curriculumaren eta didaktikaren ildo teoriko nagusiak eta gobernu dekretuen arteko aldeak, aholkulari eta teknikoen arteko desadostasunak, eta abar aztertzen ditu.

Antonio Garciak filosofia politikotik aztertzen ditu hezkuntza erreformak. Espainiako Kongresuko Hezkuntza Batzordeko kidea zenean hainbat arazoei aurre egin zietan: institutuetakoa katedratikoen jarrera eta jokabidea, Bigarren Hezkuntzan egon ziren aldaketa pedagogikoak, irakasleriaren formazioaren ildo nagusiak, alderdi politiko eskuindarren eta ezkertiarren arteko hezkuntza itunak, eta abar aztertzen dira berari egindako elkarrizketan.

Juan Delvalek irakaskuntza-ikaskuntza prozesua jorratzen du. Ikaskuntza esanguratsua, metadiziplinarra eta aktiboa bultzatzea izan zen

LOGSEren helburuetariko bat baina, bere iritziz, ez zen borondate politikorik egon hau gauzatzeko.

Juan Ignacio Ramos-ek hezkuntza erreforma hauek sindikalgintza ikuspegitik baloratzen ditu. Bere iritziz, garai hartan PSOE ez zen bere printzipio politikoeekin zintzoa izan. Hori dela eta, frustrazio dezente egon ziren alderdikideen artean.

Jurjo Torres-ek LOGSE sakonki aztertzen du: psikologiaren pisu nabarmenari eta hizkuntza teknizistari kritika gogorra egiten die. Psikologoek aholkularitzaren eragina asko nabarmentzen da lege honetan.

Mariano Fernandez Enguitak ikuspuntu soziologikotik aztertzen ditu azkeneko bi hamarkadako erreformak. Estatuaren papera hezkuntzan, eta konfesionaltasuna jorratzen ditu bereziki bere azalpenean.

Azkenik, Javier Doz-ek errealitatearen azterketa sakona beharrezkoa dela azpimarratzen du. Araudietan zabaltzen den mezua eta ikasgeletan gertatzen dena askotan ez datoz bat. Administrazioak eta ikuskaritzak ikas-tetxeetan eta bereziki ikasgeletan gertatzen dena sakonki aztertu behar ditu diagnosi errealak egin ahal izateko.

Liburu interesgarria, sakona, ezohiko ikuspuntuak (curriculum eta soziologia, hezkuntza politika, filosofia politikoa...) jorratzen dituena. Ezkerraren hezkuntza politikak, ezkertiar adituen kritika zorrotza jasotzen du...

Pello Aramendi Jauregi

ABDELILAH-BAUER, B. (2007)

El desafío del bilingüismo. Madrid: Morata.

Ba al zenekien munduko biztanleriaren erdia, gutxienez, elebiduna edo eleaniztuna dela? Ba al zenekien Frantziako haurtzaindegi eta eskoletan ehunaka haur jasotzen dituztela ama-hizkuntza frantsesa ez dutenak? Ba al zenekien, gaur egungo frantses helduen artean, lautik bati umetan bere gurasoetako batek ez ziola frantsesez egiten? Tankera honetako datuak biltzen dira liburu honetan.

Liburu honek eleaniztasuna du ardatz. Gai hau makina bat liburutant jorrotuta dago dagoeneko. Hala ere, garatzen, aldatzen, aberasten eta sakontzen den gai bai izanik, gai zaharrak eta eduki berriak oreka bikainean biltzen dira testu honetan. Eleaniztasunarekin zerikusia duten ohiko gaiak lantzen dira (hizkuntzaren mekanismoak, elebidun bihurtzeko prozesuak, elebidun motak, zailtasunak, elebitasuna eta hezkuntza, etab.). Gai unibertsalak badira ere, autoreak Frantziako adibide eta datuak erabiltzen

ditu gaiak hornitzeko. Egilea, psikologoa eta hizkuntzalaria denez, ikuspegi horretatik bideratu ditu aipaturiko gaiak.

Zer-nolako ekarpena egiten dio eremu honi liburu honek? Nire ustez baditu hainbat birtute:

- Dibulgaziorako testu aproposa da. Ederki laburtutako atalak ditu eta oinarri zientifiko zorrotzekin osatuta.
- Idazkerak eta tamaina laburrak (130 orr.) edonoren eskuetan egon daitekeen liburu dela esan liteke: gai honi buruz askotan gertatu ez bezala, irakurterraza, arina eta interesgarri bilakatzen da.
- Eguneratua da. Eleaniztasunaren eremuko gai *klasikoak* biltzen baditu ere, gai horien inguruko azken aurkikuntzak ondo txertaturik agertzen dira.

Hutsunerik aipatzekotan, irudi eza aipatuko genuke. Liburu osoan irudi, grafiko edo eskema bakar bat bera ere ez da agertzen. Irudien presentziak ulergarriago bihurtuko lituzke korapilotsuak diren hainbat gai. Hala ere, liburu osoaren ekarpen bikainak anekdota bihurtzen du oraintxe esandakoa.

Azkenik, liburu osotik bi orrialde aipatu nahi nituzke bereziki: epilogoak. Bertan, egileak, aditu rola baztertu, eta eleaniztasunaren inguruan hiritar, bikote eta ama gisa bizitako gazi-gozaok laburtzen ditu. Benetan hunkigarria.

Beraz, irakasle, unibertsitate-ikasle eta eleaniztasunaz kezkatuta da goen edonorentzat, liburu interesgarri, arin eta gaurkotua.

Iñaki Pikabea

FRASER, N. eta HONNETH, A. (2006)

¿Redistribución o reconocimiento? Un debate político-filosófico. Madrid: Morata.

Liburu bitxi hau bi filosofok (Nancy Fraserrek eta Axel Honnethen) idatzi dute distantzian eta denboran zehar eraikitako lan-talde emankor baten bidez. Fraser Filosofia eta Zientzia Politikoko katedraduna da New Yorken; horrez gain, egungo pentsalari feminista ospetsuenetakoa ere bada. Axel Honneth, aldiz, Filosofiako katedraduna da Frankfurteko Johann Wolfgang Goethe Universityn.

Egile biek izenburua osatzen duten bi kontzeptuen gainean denboran zehar osatutako eztabaida intelektuala jasotzen du. Eztabaidaren mamia, kontzeptu bi horien artean (birbanaketa ekonomikoa–onarpen soziala)

gizarte justuago bat eraikitzeko oinarrizko elementua bereizteko saioa da. Eztabaida teorikoa izanagatik, ondorio sozial nabari eta desberdinak sortzen ditu Gizartearen esparru guztietan, eta baita Hezkuntzaren soziologiaren ikergai direnetan ere.

Gainera, eztabaidaren ardatzetako bat kontzeptu bien harremanak eskatzen duen lokailuaren gainekoa da (edo/ala/eta); hots, bata eta bestea joan daitezke?, beraz doaz eskutik?, terminoetako batek lehentasuna al du besteari gainera? Eta, hala bada, lehentasun horrek uzten al dio lekuri besteari, edo ezeztatu egiten du?... Kezka horien aurrean Fraserrek ikuspegi dualista darabil, kategoria biak elkarmenpeketasunezko harreman saihestezin batzuen ehunean lotutako aldi berean funtsezkotzat jotzen ditu; beraz. Kontzeptu bien arteko aurkakotasuna okerreko abiapuntua litzateke, justiziak bien beharra baitu. Honnetik, aldiz, auziaren dimentsio bakarreko irakurketa egiten du: haren aburuz, onarpena oinarrizko kategoria moralala da, eta banaketaren auzia handik eratortzen da. Hortaz, birbanaketaren ideal sozialista onarpenaren aldeko borrokaren azpikategoriatzat hartuko du; ikuspegi horren arabera, gaur egun egoera ez bidezkoen atzean dagoena, funtsean, oinarri etikoa eskatzen duen onarpena dago, eta ez soilik sozio-ekonomikoa... Beraz, hau gauzatuko da soilik hura betetzen bada.

Hasieran genion bezala, liburuaren egitura ez da ohikoa: lau atalez osatzen da, elkarri zuzenduak. Lehen bi ataletan egile bakoitzak bere ikuspuntua zehaztu eta finkatzen du. Hurrengo bietan hasierako jarrerak eragindako hausnarketak erantzungo dizkiete elkarri.

Egile bakoitzaren jatorri eta oinarri teorikoak oso desberdinak izanik ere, kontuan hartzekoa da egoera ez bidezkoak faktore ugariaren eraginpeko fenomeno konplexutzat hartzen dituztela biek ala biek. Gure buruari galdetzen diogu ez ote duten bat egiten gaurko Mendebaldeko Europan izaera desberdineko bi kezka: batetik, denboran zehar nagusitu den eta gutxieneko segurtasun ekonomikoa eskuratu duen klase sozial eta ekonomikoki ertainarena, baldintza ekonomikoki aberatsak ez galtzekoa, behin eskuratu gero betirako bermea erantsita bailuketen. Bestetik, erdigune sozial horretako periferian dauden eta erabateko onarpena eman ez zaien gizataldeena, batzuk kolektibo historikoak (esaterako genero harremanetan edo sexu aukeran oinarrituak, aspaldiko gutxiengo etnikoak), bestetarik berriagoak, hala nola azken hamarkadetakoa immigrazioa; kolektibo horiek guztiek onarpenaren aldeko borrokari lotuak ere badaude. Nahiz eta liburuak biltzen dituen argudio-bideak erabat bateragarriak ematen ez duten arren, egia da Fraserren eta Honnethen arteko eztabaidak aberastu egiten dituela bakoitzaren ikuspuntuak. Eta, bide batez, argitu lanerako mundua interpretatu behar diren beharrez gaudenoi Filosofia sozialaren ekarpen teorikoen egiten digun argia.

Mario Unamuno Plazaola

BEANE, J. A. (2005)

La integración del currículum. Madril: Morata.

Liburu honen egilea, James A. Beane, katedraduna da Disziplinar-teko Curriculumari buruzko Ikerketa Zentroan, Ameriketako Estatu Batuetako National-Louis University-n. Liburuko gaiaren gainean eskarmentu handia du, nahiz eta bi liburu baino ez dituen gazteleraz merkaturatua: *Escuelas democráticas* izenekoa da bestea, Michael W. Apple ospetsuarekin batera idatzia, eta, hauxe bezala, Morata argitaletxeak kaleratua.

Hezkuntza sistema nagusiek ezagutza era zatikatuan eta elkarren artean loturarik gabe aurkeztera jo izan dute. Hezkuntzaren azken mendeetako Historiaren luze-zabalean aztertzeke lana hartu duenak, badaki nagusi izan dela joera hori eta, ondorioz, lege, programazio, curriculum-eredu eta bestelako dokumentuetan behin eta berriz edukiak ikasgaien logikaren arabera antolatu izan direla. Alabaina, XX. mende hasierarekin batera, berrikuntzak curriculumaren arlori ere iritsi ziren, eskolako edukiak eta jarduerak egituratzeko diziplinar-teko moldeak garatzea ekarri zuen, ikasleek kultura era hobea eta, batez ere, esanguratsua batez eskura ahal zezaten.

Horixe da esku artean dugun lanaren abiapuntua. Eta, Salvatore Quasimodo poeta italiarrak zioena egia bada («Nonbaitekoa eta noizbaitekoa izatean... horretan datza poesia gizatiar eta egiazkoenaren gako»), hortaz, bada, ez da bigarren mailakoa ere izango egilearen nondik norako biografiko-ideologikoak, liburuaren sarreran azaltzen dituenak: Izan ere, bere ama joera progresistako maistra izan zen mende hasierako eta erdialdeko hamarkadetan, eta eskolaz gain, etxean ere, senarrarekin batera metodo berberak erabiltzen saiatu ziren egilearen eta anai-arreben heziketan. Aldiz, 70. eta 80.ko hamarkadetan egilea Unibertsitatera iritsi zenerako, ikuspegi kontserbadoreak Estatu Batuetako gizartearen esparru gehienetara hedatuta, oso baztertuta aurkitu zituen etxean txikitari bizi izandako joerak.

Testuinguru horretan, bada, hezkuntza-eredu progresistek erasoaldi kontserbadorea jasaten ari den honetan egiazko izaera demokratikoa duen hezkuntza-eredua proposatzeko egilearen asmoa eta saioa da; gorago esan bezala, kontuan hartzekoa da Estatu Batuetan idatzia dela liburuak, eta hango dikotomia politikoak azalduko du hein handi batean liburuaren ukitu ideologiko garbia.

Egileak curriculumak integrazio maila handiago baterantz bultzatu duten proposamenen gaineko ereduaren historia biltzen du, eta jaso dituzten kritiken berri ematen du Bere aburuz curriculumaren integrazioa ez litzaiteke soilik «ikasgaien berrantolaketa» hutsa; horren ordez, curriculumaren integrazioaren teoria ikuspegi global gisa zurrunago bat defendatzen du. Zenbait ikastetxetan garatutako adibide ugari dakartza curriculumaren in-

tegrazioaren eta ezagutza-arloen arteko harremana azaldu eta ilustratzeko asmoz. Beanen aburuz, curriculum integratuaren ikuspegitik, lorpenik handiena gazteek beren ikasketa-esperientziak beren esanguratasun-eskemetan integratzea litzateke, euren buruen eta munduaren ulermenean aurrera egiteko; horri esker ezagutza modu organikoan erabili ahal izango dute, eta ez artifizialean.

Liburua zazpi ataletan banatzen da, hiru lehenak teorikoagoak dira curriculumaren integrazioak barne hartzen dituen alderdien ikuspegitik (esperientziaren integrazioa, integrazio soziala, ezagutzen integrazioa, eta integrazio curriculum-diseinu gisa ulertuta), hala nola integrazioaren historia labur bat. Laugarren eta bosgarren ataletan curriculumaren integrazioaren esangura sakona aztertzen du egileak, ikuspegi politikoak eta soziologikoa pedagogiarekin bat eginez. Bide horrextatik aurrera eginez, seigarren atalean gizarte benetan demokratikoetan nolako Hezkuntza? Galderari erantzun nahi dio. Azkenik, zazpigarrenak, curriculumaren integrazioak gaur egun aurrean dituen erronka nagusiak ditu hizpide.

Azkenik, merezi du liburuaren beste bi meritu aipatzea: irakurterraza eta atsegina iruditu zaigu, hurbiletik idatzia eta adibide eta pasadizo ugariz jantzia delako. Gainera, laburra ere badenez, eta esaera herrikoiari zin egin behar badiogu, bi bider on.

Mario Unamuno Plazaola

RUDDUCK, J eta FLUTTER, J (2007)

Cómo mejorar tu centro escolar dando la voz al alumnado. Madril: Morata.

Bi autore hauek betidanik egon dira kezkatuta hezkuntza eta eskola erakundeen hobekuntzarekin. Horretarako, liburu honetan, ikasleen hitza hartzen dute ardatzat; izan ere, euren hitzetan, ikasleria da edozein hezkuntza erakunderen aldaketarako gakoa. Zentzu horretan, egileek diote oso aintzat hartzekoa dela ikasleen bizi-esperientziak eta ikasketekiko eta erakundearekiko dituzten hautemateak ezagutzea.

Horrekin guztiarekin liburuak ikuspegi positiboa ematen digu, hau da, ikasleek adierazten dute zein irakaskuntza motarekin ikasten duten hobekien eta zein den ikasteko biderik eraginkorrena. Hori guztia kontutan hartuta liburuaren autoreen aburuz ezinbestekoa ikasleria entzutea, ikasleen eta irakasleen arteko elkarrekintza eta harremana aldatu nahi bada, bederen. Horrek, erlazio demokratikoak sortzea ahalbidetzen baitu eta elkarlanean espazioak egituratzea errazten du.

Hori guztia ongi ulertzen laguntzen du liburuaren egiturak. Sein kapitulu ditu eta lehengoan ikasleei buruz dugun hautemate aldaketaren beharraz aritzen da. Gaik okatzen du eta sarbide ona eman gero etorri odenaz jabetzeko. Bigarren, hirugarren eta laugarren kapituluak liburuaren mamia osatzen dute. Bertan ikasleen partaidetzaren garrantziaz aritzen dira autoreak eta baita horretan nola esku hartu ere esaten digute. Horrela, liburuan oso ongi uztartzen dira alderdi teorikoa, praktikoa eta ikasleen beraien bizipena keta usteak. Irakurleak, hortaz, aurkituko ditu kapituluotan bideak eta ideiak bere eguneroko jardunean ikasleen iritzi aintzat hartzeko.

Bosgarren kapituluan aurrekoetan mamitutakoa hartu eta gogoeta interesgarria egiteko baliatzen dute autoreek: alde batetik, gaur egun zer nolako ikasleak nahi ditugun galdetzen dute; eta, beste aldetik, gaur egungo ikasleek zer nolako ikaskuntza baldintzak nahi dituzten. Horren gainean hausnarketa oparoa egiten dute eta irakurleari berari ere hausnartzeko gonbita egiten diote.

Azkeneko kapituluan, seigarrengoan, guztiaren laburpena egin. Pertsona aktiboak, kritikoak eta erreflexiboak nahi baditugu hezkuntza horretara heltzeko konpromisoak hartu behar dituela azpimarratuz.

Asier Huegun Burgos

BARKLEY, E.F; CROSS, K.P eta HOWELL (2007)

Técnicas de aprendizaje colaborativo. Madril: Morata.

Proposamen erabat praktikoa eta zehatza da liburu honetan autoreek ekartzen digutena. Betidanik hezkuntza eta irakaskuntzaren kezketako bat hezigaien eta ikasleen inplikazio aktiboa izan da: nola sustatu? nola bultzatu? zer egin horren aurrean?

Bada, liburuaren lehengo kapituluan elkarrekin ikastearen abantailak ongi zehaztu eta azaldu ostean, ariketaz, teknikaz eta jardunbidez osatuta datorkigu liburua.

Lehengo zatian, esan bezala, elkarrekin ikastea zer den argiro azaltzen dute egileek. Alde batetik, modu horretan ikastearen onura pedagogikoetan sakontzen dute, eta, beste aldetik, frogatzen dute elkarrekin elkarlanean aritzeak ikaskuntza prozesua hobetzen duela. Hortik aurrera, hori guztia nola burutu daitekeen azaltzen dute.

Horrela, liburuaren bigarren zatian elkarrekin ikasteko zer nolako antolaketa behar den azaltzen da, eta honako alderdi honetan jartzen dute arreta: ikasleak orientatzea eta gidatzea, taldeen osaketak duen garrantziaz jabetzea, ikasketa jarduera egituratzearen garrantziaz ohartzea, ikasleen

elkarlana sustatzea eta elkarrekin egiten duten ikasketa prozesua ebaluatzea aintzat hartzea.

Ondoren, hirugarren zatian aurkitzen dugu liburuaren alderdi bai kuantitatiboki baita kualitatiboki ere; izan ere teknikaz eta ariketaz betarik dago. Zehatza eta oparoa da atal hau. Guztiz praktikoa, adibide zehatz eta ulergarri zosia. Horrela, elkarrizketa bultzatzeko teknikak azaltzen zaizkigu, elkarri irakasteko eta elkarrengandik ikasteko ariketak, arazoak ebazteko eta gainditzen teknikak, informazioa antolatzeako jardunbideak eta idazketan zentraturikoak. Atal horrek guztiak, beraz, eskuliburu osatua eskaintzen digu eta horrek duen abantailetako bat da, nonahi eta noiznahi berrikusi dezakegula ariketa hori edo teknika hura, eta gainera, horiek gure nahierara eta testuingurura egoki ditzakegula. Zentzu horretan, malgutasuna eskaintzen digu proposamen honek.

Asier Huegun Burgos

CERILLO TORREMOCHA, P. C. (2007)

Literatura Infantil y Juvenil y educación literaria. Barcelona: Octaedro.

Castilla-La Mancha Unibertsitateko irakaslea dugu Pedro Cerrillo, eta kritika eta ikerketa lan askoren egilea. Honako honetan, aldiz, Literaturaren didaktikari heltzen dion lana plazaratu du.

Hitzaurrean, argi eta garbi adierazten du Cuencako irakasleak zein den liburu honen helburua: «En el libro que el lector tiene en sus manos defendemos la necesidad de la formación de la competencia literaria, como paso previo imprescindible para la *educación literaria*, a la que se llegará tras recorrer un camino en el que son muy importantes las lecturas infantiles y juveniles, particularmente las primeras lecturas, para cuya selección, además, el profesor deberá tener los criterios necesarios para hacerla en las mejores condiciones.» (15. or.)

Horretarako, literatur teoretatik abiatu, heziketa literario berria proposatzera pasatzen da Cerrillo. Lehen atal horren ondoren Haur eta Gazte Literatura (HGL) aztertzeari ekiten zaio, historia, kontzeptua bera, ezaugarriak, bere garrantzia literatura heziketan... paratetuak eta kanona bezalako kontuekin amaitzeko.

Eduki teoriko hauen ondoren irakaslearen heziketaz (irakaslea bitartekari gisa literatura eta haurren artean, batik bat) eta lehen urteetako irakurketaren garrantziaz ari zaigu liburugilea.

Didaktika arlo honetan, gainera, bada kapitulu oso bat, «Escribir bien para leer mejor: las prácticas escolares de escritura creativa», Victor

Morenok sarritan proposaturikoaren ildotik, eta adibide praktiko ugariz horniturik.

Amaitzeko, irakurketak mende berri honetan dituen erronkak eta HGL-ren sakontzeko iturri eta bibliografia zabala eskaintzen zaigu liburu interesgarri honetan.

Cerrillok gaur egun arlo honetan dauden teoria garrantzitsuenak aipatzen ditu, baina horretan geratu beharrean maiz adibide praktikoetara jotzen du. Irakurgai proposamenak egin, sorkuntza lanak eskaini... ulergarriagoa gerta dakigun testuak proposaturikoa, baina baita liburuak gogoeta egitera bultzatzeaz gain irtenbideak eskaini ditzan.

Liburua, arestian aipatu dugu, Castilla-La Mancha Unibertsitateko irakasle batek egin du, eta alde horretatik normala da euskarazko produkzioaren presentzia urria (ia ezdeusa kritika arloan, eta itzulpen bakar batzuk liburu zerrenda gomendatueta), baina gabezi hori guk geuk bete beharko dugu Euskal Herritik.

Horrez gain lan honetan, zenbaitetan, eskola liburua dirudi, unibertsitateko liburua, eta hori nabaria da ezaugarri edo aipamenen zerrendetan. Baina, horrekin batera bada beste publiko batzuei ere hurbiltzeko saioa, eta horren ondorioz ageri dira hainbat liburu zerrenda: «Una propuesta de canon escolar de lecturas», «25 libros para leer en cualquier momento» edo 2000. urtean hainbat adituk (tartean EHUko Mariasun Landa irakasleak) egin zuten XX. mendeko Espainiako HGLren 100 liburuen zerrenda.

Zalantzarik gabe liburu hau oso erabilgarria izango da Irakasle Eskoletan, baina baita oso gomendagarria da eguneroko jardunean irakurketaren inguruan ari diren guztientzat, haur nahiz gazteak irakur zaletu edo irakurketen bidez hezi nahi dituzten maisu-maistra eta irakasle guzti horientzat.

Xabier Etxaniz Erle

GARCIA, M.; CALVO, A.; SUSINOS, Teresa (Eds) (2008)

Las mujeres cambian la educación. Investigar la escuela, relatar la Experiencia. Madril: Narcea

Marta García, Adelina Calvo eta Teresa Susinos, Cantabriako irakasleek honako egileak koordinatzen dituzte Pilar Aguilar, Charo Altable, Nieves Blanco, Dolo Molina, Nuria Solsona eta Amparo Tomé

Liburu honetan aurkitzen dugun menuan plater guztiak dira goxagariak. Obra kolektiboa da. Emakumeek idatzitakoa baina ez soilik emakumeentzat. Ikuspuntu anitz eta estiloen ezberdintasunean hezkuntzan interesatutako edonork aurki dezake gustukoa den hori, hurbila zaion gaia.

Cantabriako Unibertsitateak ospatutako Udako Ikastaroan sortutako proiektua dugu. Ezin ahaztu egileak unibertsitate mundukoak direla eta haien lanak eta ikerkuntzak generoaren inguruko gaietan murgilduta daudela.

Hezkuntza maila ezberdinetan eta jakintza arlo ezberdinetan, (kimika, hizkuntza eta literatura, historia, etab.), emakumeek pentsatutakoa eta praktikan jarritako esperientziak dira. Proposamen eta hausnarketa ezberdinak aurkituko ditugu, ez bakarrik helburuetan baizik eta hartzen duten formatuan ere. Beraz, ez dugu begirada lineal eta homogenea aurkituko, eta hala izaten da maiz generoaren inguruko eztabaidekin gertatzen dena, baina testu osoaren zehar azpimarratzekoa eta eskertzekoa da etengabe ezagutza errealitateari konektatuta agertzen dela.

Liburuaren edukiari dagokionez hiru izango dira jorratuko diren ardatzak:

- Emakumeen bizitza istorioan izaera kualitatiboa duten ikerkuntzak
- Hezkuntza eta emakumeak abiapuntu harturik gaur egungo eztabaidei buruzko saiakera teorikoak
- Emakumeen jakintzen berreskurapenaren bitartez, bestelako curriculum eta beste eskola mota bat posibleak direla agertzen duten hezkuntza esperientziak

Adibide ezberdinekin azaltzen da nola egiten ari den, nola berreskuratu eta nola baloratu jakintza femeninoak. Gure gaurko eskolan emakumeen presentzia edo presentzia ezari buruzko aspektu ezberdinak agerian jartzen dira testu hauetan.

Guzti honen bitartez gizartearen baitan eta hezkuntzan emakumeek duten tokiaz hausnartzea suposatzen duelarik.

Emakumeek hezkuntzari egiten dizkioten ekarpenak ez dira gaur eguneko kontu bat. Ezin da ahaztu txikien heziketa emakumeen esku egon dela.

Emakumezkoen jakintzen presentziak ikasleei maskulinoa eta femeninoa zer den ulertzeko balore ezberdinak eskainiko dizkie, unibertsio femeninoaren perspektiba ezagutzeak guztion onurako baita. Liburu honetan, emakumeek beren eginbeharrak eta eguneroko lanekin mundua eusten laguntzen ari direla onartzea eskatzen ari da eta honen ondorioz, curriculumean, esfera pribatuari mugatuak izan zaizkion jakintzak integratzea, esate baterako gurekiko edo besteekiko zaintza. Inteligentzia emozionalaren teoriak agerian utzi dute emakumezkoen jakintzak izan diren entzuketak eta bestearen tokian jartzeak gizaki guztientzat ezinbestekoak direla

Egileen ustez, eskolak aldakuntza sozialaren bultzatzaile den aldetik, beste orden sinboliko bat bultzatu beharko luke, bai gizonezkoentzat bai emakumezkoentzat justuago eta libreagoa izango dena .

Liburu honen orrietan atal inportante bat emakumeen hainbat ahotsei ematen zaion tokia da. Kapitulu batean, bigarren hezkuntzako lau nerabeen kontakizunak, gizona oinarritzat hartzen duen eredu erotikoa baztertu ahal izateko hezkuntza afektibo sexualaren beharra erakusten digu.

Beste batean, familia bereko hiru belaunaldietako emakumeen hezkuntzarekiko erretratua egiten da, XX mendean Estatu Espainoleko hezkuntzaren historiari hurbiltzeko bidea eginez.

Beste atal batean, *Movimiento de Renovación Pedagógica del País Valencià-Goncal Anaya*-ren maistrek egindako praktika pedagogikoen eta kontakizunen inguruan hausnartzeko aukera ematen dute ere.

Ba ditugu oraindik kezkarriak diren hainbat esparru, gaur egun, oraindik, hezkuntzak instituzio gisa, arrazionaltasuna eta sentimenduak banatuak eta ezin elkartzekoak diren munduak direla aurkezten digulako. Sentimenduak baztertzeko ikasle eta irakasleen artean konfiantzan oinarritutako erlazioak ezartzeko zailtasun ikaragarria ezarriz. Zientzia modernoak emakumezkoen jakintzak baztertzen ditu. Testu liburuak, sexistak dira edukietan, lengoaiari eta ilustrazioetan ere, eta emakume idazle edo zientifikoen erreferentziarik ez dago.

Guzti honen aurrean, lan egiteko bideak edo proposamenak agertuko dizkigu hezkidetzaren alde egiten duen liburu honek.

Horren adibide dira Barcelonako Udalean «*Proyecto de Educación en Valores*» delakoan bultzatzen ari diren proiektuak, zeintzuetan biolentziazko jokamoldeek, (eskola mailan zein bestelako testuinguru sozialetan ematen direnak), genero identitateekin zerikusia dutela erakusten saiatzen direlarik.

Amaitzeko ezin zen baztertu gaur egun irudiak duen garrantzia gogoraztea eta eskolan gai hau lantzearen beharra, teoria eta praktika posibleak elkar loturik eskaintzen zaizkigula.

Liburuaren sarreran esaten den modura, elkarbizitzari eta munduaren ulerkuntzari laguntzen dion liburua dugu hau.

Amaia Montorio

DEL FRAGO, R. eta ALVAREZ ROJO, V. (2006).

DBHko erabakia hartu behar dut! Ikasketak eta lanbideak hautatzeko orientabide programa. 1. Jarduerak, 2. Euskarri koadernoagida. Donostia: EREIN.

Rakel del Frago Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak orientabide programa hau

argitaratu du Victor Alvarez Rojorekin batera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaitzean ikasleei ikasten jarraitu edo lan bila hasi erabakitzen laguntzeko.

DBHko erabakia hartu behar dut! izenburuko esku-liburua, hain zuzen ere, lehenengo mailako hezkuntza eta gizarte behar bati erantzuteko pres-tatu da: DBHn ikasleak ikasgaiak hautatu behar izaten ditu, eta amaitzean aipatutako erabaki hori hartu behar du. Horregatik, esku-hartze goiztiarra egiteko beharra azaltzen da, bakoitza dena eta izan nahi duenari buruz ana-lisia egiteko, eta hautapen estrategiak estimulatzeko.

Orientabide Programa hau D. Pelletier-en eta haren laguntzaileen (1984) «Bokazio Garapenaren eta Garapen Pertsonalaren Aktibazio» (B.G.P.A) **ere-du teorikoan** oinarrituta dago; Quebec eta Canada-ko Bigarren Hezkuntzazko zentroetan aplikaturikoa eta aldi berean, «Bokazio Hezkuntzarako» edo «Kar-reraren Hezkuntzarako» mugimenduaren barnean dago.

DBHko erabakia hartu behar dut! Programaren **Helburu nagusia**, etorkizunean lanbide bat hautatzeko eta lanbide horri dagozkion sarbidea eta prestakuntza planifikatzeko beharrezkoak diren trebetasunak esku-ratzea eta garatu ahal izateko laguntza eskaintzea litzateke. Programaren garapenak, ikasleek euren etorkizunari buruz dituzten galderei elkarlanean eta solas giroan erantzuna bilatzeko aukera eskaintzea bilatzen du eta ez bokaziozko edukiak edo bestelako edukiak adieraztea. Beraz, lortutako emaitzak baino garrantzia handiagoa izango du bilaketa prozesuak.

Programak 2 koaderno dakartza:

1. *Euskarri koaderno* – *Irakasleak*: tutorearen ekintzak euskarri era-ginkor bat izan dezan diseinatu da. Bertan jardueren antolaketari buruzko adierazpenak, garrantzi pedagogikoari buruzko hausnarketak, jarduerekin lor-tu nahi diren helburuen deskribapenak, gai zehatzekiko informazio osagarria, tutorearen funtzioak, saioaren ebaluazio orokorra eta abar aurki daitezke.

2. *Jardueren koaderno* – *Ikasleak*. Bertako edukiak hiru zatitan berei-zi daitezke: a) Saioen arabeko jardueren deskribapena eta horiek egiteko elementu motibatzaileak; b) Informazio-bilketa eta analisi-tresna autoap-likatzaileak, eta ez estandarizatuak; c) Programa ebaluatzeke galdeketa. Jardueren koaderno honen bukaeran, guztiaren bukaeran, informazio gehi-garria ekartzen du *Hezkuntza Sistemaren Antolaketari* buruz, DBH amaitu eta dituzten aukera ugari eta desberdinak agertzen direlarik. *DBHko eraba-kia hartu behar dut!*

Aurkeztu den programaren atzean ibilbide luzea dago, esperimentazio eta ikerketa enpiriko zabala. 1991n argitaratu zen, gaztelaniaz idatzita eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoan diharduten ikasleei bideratuta eta bigarren aldiz, zuzenduta, 1997an kaleratu zen ¡Tengo Que

Decidirme! TQD! (Álvarez Rojo)/ «Erabaki egin behar dut' jatorrizko programaren DBHrako egokitzapen bat da.

Izan ere Programa Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ikastetxetan, 3. mailan dauden ikasleekin, frogatu izan da ikasgelan integratutako lan-tresna gisa ikasle guztientzako derrigorrezko eskolatze-aldiko eskola-curriculumaren barruan. Hori dela eta Programa prestatzean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzaren ezaugarriak hartu dira kontuan: irakasleen eta ikasleen beharrak, orientazioari eskaini ahal izango zaion denbora, gelan lan egiteko modua, eta abar.

DBHko erabakia hartu behar dut! Programa, beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleen egoerara egokitu eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako bere lehen argitalpena da.

Beronika Azpillaga Larrea

CARRETERO, M. (2007)

Konstruktibismoa eta hezkuntza. Donostia: Hik Hasi.

Carreterok idatzi eta Lontxo Oihartzabalek itzultitako liburu honen xedea irakasleei baliabide erabilgarri bat eskaintzea izan da. Horregatik, hezkuntzan ari direnei edo arlo horretan prestakuntza jasotzen dutenei zuzenduta egon daiteke.

Lehenengo atalean edozein pedagogok, irakaslek edo hezkuntza arloan aritzen den edonork konstruktibismo delako hori zer den azaltzen da. Gainera kontuan hartu behar dugu gaur egungo hezkuntza-sisteman jarraitzen diren ideia askok horren oinarria hartzen dutela. Egileak Piageten, Vigostkiren eta Ausubelen ekarpenak gogora ekartzen dizkigu, hirurak ere konstruktibistak. Azkenik, konstruktibismoa hainbat modutan uler daitekeela esaten du, hurrengo motak aurkeztuz: «Bakarkako jarduera da ikastearena», «hobeto ikasten da lagunekin batera» eta «ezin ikas daiteke ezer, lagunekin batera ez bada».

Bigarren atalean, garapen kognitiboaren ikuspegi globala ematen da. Hasteko, Piageten teoria sakonago azaltzen da (zentzu-mugimenduzko estadia, eragiketa konkretuen estadia, eragiketa formalaren estadia) eta jarraitzeko beste ekarpen garrantzitsu batzuk ere. Azken horiek, informazio prozesamenduaren ikuspegitik eta teoria neopiagetiarretatik datozenak, hain zuzen ere.

Hirugarren atalean, ikasteko garrantzitsuak diren bi mekanismo azaltzen dira, hau da, ulermena eta motibazioa. Alde batetik, ikasketa errepikakorra edo esanguratsua izan daiteke. Egileak eskolako ikaskuntzan

biak, modu batean, beharrezkoak direla adierazten du, adibideak jarritz. Beste alde batetik, intentziosko ikastea eta ikaste intzidentala gogora ekartzen dizkigu. Geroago, testuak ulertzeko bai testuak berak dituen ezaugarrien bai pertsonak testua ulertzeko erabiltzen duen jarduera kognitiboaren emaitza dela azaltzen da. Carreterok aurkezpen-testuak zertan dautzan adierazten du eta motibazioaren osagaiak ere bai.

Laugarren atalean, egileak *curriculum*arekin zerikusia duten eremu batzuk kontuan hartzen ditu, aldez aurretik azaldutako ideiei adibideak jartzeko, besteak beste, Zientzia, Historia eta Gizarte-Zientziak.

Bosgarren atalean, azkenik, egileak hainbat galderari erantzuna ematen dio eta horrek ere irakurleak hausnar dezan balio du.

Nire eskerrik beroenak Lontxo Oihartzabali euskaldunoi euskaraz ikasteko tresna bat ahalbidetu digulako.

Leire Darreche

JASOTAKO LIBURUAK

CUENCA, R., NUCINKIS, N. eta ZAVALA, V. (biltz.) (2007)

Nuevos maestros para América Latina. Madril: Morata.

WRIGLEY, T. (2007)

Escuelas para la esperanza. Una nueva agenda para la renovación. Madril: Morata.